

2HE: IDATZIA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

INFORMAZIO OROKORRA

IZENA EMATEKO EPEA	Maiatzaren 21etik ekainaren 15era		
IKASLE KOPURUA	12 ikasle guztira	HARTZAILEAK	Arabako Eskualdeko, Arabao Unibertsitate Ospitaleko, Arabako Osasun Mentaleko Sareko, Emergentzietako eta Lezako Ospitaleko langileak
	-Arabako Eskualdea	5	
	-AUO	3	
	-AOMS	2	
	-Emergentziak	1	
	-Lezako Ospitalea	1	
DISEINUA eta IRAKASLEA	Labayru	LEHENTASUNA	Euskara Planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	- 2014ko ekainaren 30ean gutxienez euskaltegiko 9. urratsa gaindituta izatea. 2013-2014 ikasturtean bere kabuz edo Osakidetzak ordainduta ikasi zutenek euskaltegiko egiaztaria aurkeztu behar dute; IVAP-Osakidetzaren deialdiaren bidez ikasi zutenen kasuan, ofizioz egingo da egiaztapena.		
AUKERAKETA IRIZPIDEAK	1. Langile finkoak, bitartekoak eta behin-behinekoak, hurrenkera horretan. 2. Lanpostuak derrigortasun-data edukitzea. 3. Lanpostua dagoen unitatearen lehentasuna zerbitzu-erakundearen Euskara Planaren arabera. 4. 2014-2015 ikasturtean lanorduz kanpo ikasten aritzea, euskaltegi homologatu batean edo Hizkuntza Eskola Ofizialean.		

IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATAK	Urriak 13, 15, 20, 22, 27 eta 29	TOKIA/IKASGELA	Gasteiz Adriano VI, 20; 6. solairua Valderejo 1 gela
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	15:00 – 17:30
MATERIALA	Ikastaroan banatuko da		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	2HEko gutuna eta iritzia emateko testuak sortzen trebatzea. - Testu-mota horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHATZAK	- Azterketaren aurkezpena egin. - IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. - Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. - Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. - Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. - Aberastasunaren gaineko argibide batzuk eman eta ariketak egin. - Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da bere lan-esparruko eta hainbat gai ezagunei buruzko testuak sortzen dituenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.

PROGRAMAZIOA

1. saioa:

- B2 mailaren deskribapen orokorra egin.
- 2HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.
- Iritzi-artikulu bat idatzi, azken eskola-egunean zuzentzeko.
- Galderak egin: nola ibili diren denboraz azterketa egitean, eskemarik egin duten, idazlan luzea egitean eskemaren garrantzia azpimarratu.

2. saioa:

- IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
- Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.
- Iritzi-artikuluaren zirriborria nola egin azaldu eta ariketak egin.
- Etterako: Gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulu idazteko zirriborria egin.

3. saioa:

- Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.
- Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.
- Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

4. saioa:

- Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborria, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...
- Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
- Etterako: Gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

5. saioa:

- Etxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.
- Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.
- Aprobetxamendu-proba.
- Etterako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulu zuzendu.

6. saioa:

- Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.
- Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin eratzeko.
- Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
- Balorazioa.

EBALUAKETA

- Evaluaketaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- Evaluaketak jaso beharko du: Ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen gogobetetze inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- Bete beharreko baldintza:
- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

ANTOLATZAILEA

EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOA